



PERIKO ETA KALISTA, TENTSIOMETRO ARTISTAK

Jatorrizko ideia eta textuak

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

Irudiak

Raquel Gonzalo García de Motiloa

Diseinu eta kolorea

Maialen Gonzalo García de Motiloa



Neska-mutiko maiteok: ikusiko duzueenez, tentsiometro batzuk ere bizi dira nire barruan, eta kilometro asko egiten dituzte patinen gainean.

Periko du izena mutilak, eta berritsu galanta da; hau da, etengabeko hitz-jarioa du.


Neskak, berriz, Kalista du izena, eta, oso ona da bere lanean.

Ospitale batean egiten dute lan Perikok eta Kalistak, neska-mutikoen tentsioa nahiko zehatz neurtzen.

Zainetatik odolak nola zirkulatzen duen jakiteko neurtzen da tentsioa. Batzuetan, bideko landareak usainduz ibili ohi da

Kalista, poliki-poliki. Besteak beste, menda usaintzen du, bere landarerek gogokoena. Beste batzuetan, aldiz, ziztu batean ibiltzen da, tximista bezain azkar.

Lana amaitu eta etxera itzultzean, leihotik paisaiari begira jartzen dira Periko eta Kalista. Begiak itxi, arnasa sakon hartu eta, ondoren, patinatzerara joaten dira.



Perikoren burua karratua da, telebista baten modukoa, eta hiru botoi ditu alde bakoitzean, igogailuek bezala. Bibotean, berriz,

lau ile besterik ez du, katuen antzera; kokospekoa ere badu, pospolo-itxurako ilez betea. Begi handiak ditu, lehoienak

bezalakoak; sudurrak, berriz, babarruna dirudi.

Meharra du gorputza, eta, saskitxo batean, Agapito izeneko mahukatxo bat darama.

Patinak eraman ohi ditu oinetan, asko gustatzen baitzaio korrika ibiltzea.

Kalistak ere oso buru karratua du eta, maiz, begizta batez apaintzen du. Luzeak eta finak ditu betileak, izeba Balentinarenak

bezalakoak; ahoa, berriz, handi samarra, eta granate-kolorekoak ezpainak.


Lepoan, aledun lepoko bat eraman ohi du, buelta bakarrekoa. Perikori, ordea, lepoan tximeleta-begizta bat —auskalo non erositia—
eramatea gustatzen zaio.

Magikoak dira Periko eta Kalistaren aurpegiak: lanean hasten direnean, zenbaki batzuk agertzen zaizkie aurpegian eta tango
bat, rock bat edo bals bat dantzatzeko dute, pozik eta etengabe.

Kalistaren sabelean saski ere badago. Han egiten du lo Pako izeneko mahukatxo batek. Batzuetan puztu egiten da Pako, eta,
beste batzuetan, argal-argal geratzen da.

Bota-patinak eraman ohi ditu, beti, Kalistak, eta pilotan ere jokatzen du haiek jantzita dituela.

Oso ongi dakite dantzan tentsiometroek, eta patinaje-erakusketetan parte hartu ohi dute.




Ospitaleko korridoreetan gelarik gela ibiltzen dira, trebezia handiz ibili ere. Izan ere, patinaje-lehiaketetan parte hartzea asko gustatzen zaie.

Halako batean, Federiko izeneko mutiko baten gelara sartu da Periko, berritsu asko, beti bezala.

-Kaixo, Federiko. Zer moduz zaude? Periko dut izena, eta, pixka batean itxaroten baduzu, mahukatxo jator bat jarriko dizut besoan. Globoa balitz bezala puztuko da eta, ondoren, airea irten egingo da. Oso dibertigarria da.

Honela erantzun dio Federikok:

-Eskerrik asko, Periko. Igeri egitera joaten naizenean ere jantzi ohi dut mahukatxo bat beso bakoitzean.



Bien bitartean, Dora izeneko neska baten gelara sartu da Kalista. Handitzen denean ikertzaile izan nahi du Dorak.

Honela agurtu du Kalistak:

-Kaixo, Dora! Zer moduz zaude gaur? Hemen nago, egunero bezala: lehenbizi, etorri egiten naiz; gero, joan. Utziko al didazu zure besotxoan mahukatxoak jartzen?

Honela erantzun dio Dorak:

-Uii! Bai gauza arraroa! Elkar agurtzeko, jendeak ez du besoa ematen, eskua baizik.

Honela erantzun dio Kalistak:


Begira nola agurtzen zaitudan nik.

Ondoren, gelaren alde batetik bestera ibili da, patinekin; gero, gelaren erdian jarri eta hiru bider biratu da, bere buruaren inguruan. Gero, agur gisara edo, burua makurtu du, sarritan egin ohi duen bezala.

Oso pozik geratu da Dora, eta txaloka hasi da agurra amaitzean. Ondoren, honela mintzatu da:

-Badakit tentsiometro bat zarela, Kalista, eta artista bikaina zarela ere bai. Hala esan zidan Martzial doktoreak (pediatra oso atsegina), ospitalean izan nintzen beste batean.

-Ene, bada! Bai neska azkarra! -dio Kalistak.



Lana bukatzean, egunero bezala, paisaia ikustera joan dira Periko eta Kalista; ondoren, patinaje-entrenamendura, biharamunean erakustaldi bat egin behar baitute pista batean.

Egun hartan, egunsentian, eguzkia ateratzean, oso urduri daude biak. Orduan gogoratu dute Brenda adiskideak (fonendoa) irakatsi diena: gorputza lasaitzeko, arnasa behar bezala hartu behar da, poliki eta lasai, alegia. Gero, begiak itxi eta, irudimenarekin, saioa oso ondo egingo dutela ikusi dute. Izan ere, Txutxo txakurrak ere badaki gogotik saiatu direla. Probak ederki aterako zaizkiela uste dute.

"Ahalik eta ondoen egingo dugu", diote, berekiko, burua lasaitzearren eta jendeak txalo nola joko dien irudikatzearen.

Eta, egia esan, gutxitan ikusi da halako erakustaldi perfekturik. Amaitu dutenean, aho zabalik geratu da jendea, eta etengabe ari dira denak txaloka.



Hiru eguneko atseden ongi mereziaren ondoren, ospitalera itzuli dira Periko eta Kalista, artista ospetsu gisara itzuli ere, egunkarietan, telebistan eta aldizkarietan ere eman baitute haien garaipenaren berri.

Hala eta guztiz ere, lehen bezala arte jarraituko dute biek, baitakite ospea iragankorra izaten dela.

Lanari ekitean, ustekabeko bat gertatu zaie: aurpegiko zenbaki "dantzariak" ez dira azaldu, eta mahukatxoak ez dira potolo-potolo bihurtu. Antza denez, erakustaldiko zalaparta dela eta... elgorria harrapatu dute Perikok eta Kalistak.

-Pattal daude tentsiometro hauek -dio Martzialek, ospitaleko pediatrak.

-Sendatzen lagundu egingo diegu -dio Pilarrek, eremu hartako pediatrak.


Ondoren, ospitale oso berezi batera eraman dituzte biak: medikuen tresnak artatzen dituzte! Primeran zaindu eta mimatu dituzte.

Kalistak berehala egin du hobera; Perikok, ordea, ez.

Egunen bat edo beste sukarra eta dardarak jasan ondoren, haren aurpegian ez dira ikusten jada zenbaki dantzariak.

Pikor ugari ageri ditu, paella bat egiteko adina ia-ia.

Periko gaixoa! Hain dago gaixorik, eta, gainera, isilik!



Eguna joan, eguna etorri, eta hor segitzen du Perikoren elgorriak. Piperra bezain gorri dauka aurpegia.

Halako batean, termometro bat, eskuan abaniko bat duela, sartu da Perikoren gelara:

-Badakit zer gertatzen zaizun, Periko, ni ere gorri-gorri jartzen bainaiz sukarra igoz gero.


Hitz egiten duen bitartean, airea ematen dio Perikori, abanikoa mugituz.

Geroxeago, laguntzaile bat sartu da, arrosa-kolorez jantzia, eskuetan zenbait gauza dakartzala (gazazko oihal batzuk eta konketa bat, besteak beste), Perikori laguntzeko asmoz.

Errukiñe du izena laguntzaileak, eta Perikoren kopetan jarri ditu oihalak, ur hotzetan bustita. Perikok, bien bitartean, sutan jarraitzen du, eta termometroak, berriz, abanikoa astindu eta astindu.

Ondoren, Ela -erizaina- sartu da, Matilda xiringarekin, eta ipurdian ziztatu du mahukatxoa, baina hau ez da konturatu ere egin.

Guztien artean, azkenik, gaixoaren tenperatura jaistea lortu dute eta oso pozik jarri dira, gaitza menderatua dutela ohartu dira eta.



Biharamunean, ekialdeko mendietatik eguzkia azaldu denean, berriro hasi dira etengabe dantzaz zenbakiak, irribarretsu, Perikoren aurpegian.


Gure mahukatxo argala, berriz, puzten eta puzten hasi da, eta denak ohartu dira Periko tentsiometroa berriro ere martxan dela.

Arratsalde hartan bertan irten da Periko tresnen ospitale ospetsu hartatik.

Etxean atsedeen-egun batzuk igaro ondoren, pozik itzuli da Periko haurrekin lanera, patinatzeari utzi gabe, noski.

Kalista zain zeukan, eta Periko hain pozik ikustean, bera ere patinatzen hasi da, horretarako talentua badu eta.

Egun hartan, beste erakustaldi bat amaitzean, elkarri eskua emanda egon ziren oihala jaitsi zen arte.





AMAIERA

J.I.E.. VI-148-2011